

Gazteluak

Bizkaian dagoen gaztelu kopurua oso txikia da, eta dauden apurrek, gainera, ez dute antzik Gaztelako ohiko tipologiarekin. Gelditzen direnak bilakaera handia izan duten dorreak dira, XIX. mendeko eraikinak (Erdi Aro Berriko itxurakoak), esate baterako, Butroikoa eta Arteagakoa (antzinako dorretxeen gainean altxatuta).

Eraikin horiei gaztelu izaera eman eta dorreetatik bereizten dituzten ezaugarriak honako hauek dira: barruti baten inguruko harresia egotea, eta barruti horretan dorre nagusia altxatzen da (**omenaldiko dorrea**). Defentsako elementuak daude, esate baterako, almenak edo adarbeak, eta horietan matakana nahiz lapur-zuloak daude, defendatzaileak babesteko pantailatzat. Matakana harresiaren harrizko luzapenak ziren, eta behealdean zulo bat zuten, bertatik jaurtigiak botatzeko. Lapur-zuloak matakana antzekoak ziren, baina zurezkoak. Itsu-leihoak harresidun zatia zen eta atearen aurrean zegoen.

Gaztelu batzuetan lubakiak eta ezpondak zeuden, harresiaren inguruan, eta zubi altxagarriak zituzten.



Motte de Hastings deritzonaren eraikuntza. Jatorrizko gazteluak latesiekin inguraturiko dorre hutsak izan ziren, zurez egindakoak, eta horien ordez harrizkoak erabili ziren, XII. mendetik aurrera. Egitura gero eta konplexuagoa izan zen: hormen lodiera handitu eta ezpondak, itsu-leihoak, estalitako dorreak, zubi altxagarriak eta abar eraiki ziren.

Muñatonos gaztelua

Muñatonos gaztelua estu lotuta dago Salazar familiari.

Salazartarrak XIV. mendearen erdia baino lehen finkatu ziren Muskizen, eta euren etxea Muñatonostarren etxearekin lotu zuten; izan ere, 1382an, Ochoa de Salazar Teresa de Muñatonosekin ezkondu zen, Muñatonostarren orubearen oinordekoarekin. Euren lehenengo semea Lope García de Salazar kronikari eta bandokide ospetsua izan zen.

Garai hartan, oraingo gaztelua dorre hutsa zen. Garaikideek egindako adierazpenetatik ateratzen denez, inguruko dorre batzuk baino txikiagoa zen. Aldaketa nagusia, gaztelu itxura eman ziona, 1439 eta 1446 urteen artean egin zen, Lope García de Salazarrek Aiala etxeak Lutxanan eraikitako gazteluaren mehatxuari aurre egin behar izan zionean, baita urte horietan Aialatarrek eta Velascotarrek osaturiko koalizioaren aurkako gerrak izan zituenean ere, Enkarterrietako beste aliatu batzuekin batera. Mehatxua askoz ere lehenago sortu zen, Velasco etxeak (Salazartarren betiko arerioa) Lutxana gaztelua lortu zuenean, 1448an.

Egindako obrak (gehienbat militarrek) nahiko gogorrak izan ziren, etengabeko inguratzei aurre egiteko, Velasco (Haroko kondeak eta Gaztelako kondetablesak) eta Aiala etxeek halako erasoaldiak egin baitzizkioten gazteluari.

González Cembellín historialariak *"El castillo de Muñatonos"* deritzon lanean dioenez, dorre zaharraren birmoldaketa 2,80 m-ko lodierako hormak jartzean oinarritu zen, lehenengo bi pisuen ordez lau eusteko. Gainera, azotea bat jarri zen, eta bertara tranpatxo batetik iristen



zen; horren lurzorua 80 habe baino gehiagok osatzen zuten, eta horiek zeharkako geruzak eratuz kokaturik zeuden. Trinkotasun handi horrek, berriz, gerrako makinek botatako jaurti-

gaitatik babesten zuen. Ertzetan lau kubo edo gaztelutxo txiki jarri ziren. Barruan, solairuak zurezko eskailera kiribil batekin komunikatzen ziren (hurrengo puntuan jarraitzen du) eta



horrek 95 eskailera-maila zituen. Amaitzeko, dorrearen inguruan bi hesi jarri ziren; lehenengoa 2,85 metroko lodierakoa eta 10 metroko altuerakoa. Horren inguruan beste hesi bat ipini zen, kanpoaldean, askoz ere bakunagoa, kabaren edo sikaturiko lubakiaren bidez indartuta.

Hurrengo lan garrantzitsua Lope García de Salazar hildakoan bere seme Joanek egindakoa izan zen (Moro esaten zioten). Kanpoko harresia indartu eta handitu egin zuen, alboetan dorre biribilak eta aurre nahiz atzealdean lauki

itxurako dorreak ipinita. Gotorlekua prest egon behar zen, Gaztelako kondetabeen eta errege tropen erasoei aurre egiteko, horien erasoak etengabeak izan baitziren Joan Moro Errege Katolikoaren aurka altxatu zenean, Treviñoko kondearen laguntzarekin.

Joan Moro Bizkaiko bandoen arteko gatazken azken aldia hil zen; garai horretan, Muñatones gazteluaren amaiera hasi zen. XVII. mendean, Otañes etxeari (gaztelua amaren partetik jarauntsi zuena) maiorazkoa eta Muñatones gaztelua kendu zizkioten.

Hori, gero, Salazar de San Martín deritzenen eskura igaro zen; horiek Las Carrerasen zuten egoitza nagusia, eta uko egin zioten gazteluari. Hutsik gelditzean, horren narriadura geldiezia hasi zen.

1949an Muñatones gaztelua Bizkaiko Foru Aldundiak hartu zuen, eta horrek narriadura geldiarazi zuen. Lehenengo berrikuntzari ekin zioten. Gaur egun, Ondare Zerbitzua berrikuntza sakona ikuskatzen ari da, Muskizeko Eskola Tailerrak egindakoa. Iraganean izandako itxuraren zati bat berreskuratu nahi da.



Butroeko gaztelua

Gazteluak hartzen duen lekuan, lehen Butroeko leinuko dorreen bandokide bat zegoen. Lehenengo karlistada amaitzean, liberalek dorrea desegitea erabaki zuten, eta ordutik, maizterrentzako alokairu-etxea da.

XIX. mendean horren jaraunslea Torrecillako markesa izan zen; horrek, berriz, oraingo gaztelua eraikitzea erabaki zuen; obrak Francisco de Cubas arkitektoaren esku gelditu ziren (Cubasko markesa), eta horrek orain duen Erdi Aro berriko itxura eman zion. Obrak 1879an hasi eta 1885era arte luzatu ziren. Antzinako dorretik elementu gutxi batzuk baino ez dira

gelditu: zimenduen zati bat, dorretariko bat eta sarbide nagusia, arku gotikoarekin. Obren maisua Nicómedes de Eguiluz izan zen, eta eskulturaren apaindura Adolfo de Areizagak egin zuen. Erabilitako harriak 11.000 metro kubikoko bolumena dauka eta azalera bizigarria 3.900 metro karratukoa da.

Gazteluaren inguruko parkeak 45.000 metro karratu ditu, eta bertan, zuhaitz exotiko asko dago, esaterako, palmondoak, izeiak, sekuoia luzeak... Gaztelutik hurbil baseliza bat eta antzinako errota daude (azken hori gaur egun jatetxea da).



Butroeko gaztelua. Goian, Butroeko dorrea, oraingo gazteluko obrak hasi baino lehen.



Arteagako gaztelua

Butroeko gazteluaren kasuan bezala, gaztelu hau arkitektura erromantikokoa da, eta XIX. mendeko bigarren erdian eraiki zen.

Eugenia de Montijo y Arteaga enperatrizak aginduta eraiki zen, horren aurrekoen orubean, bizkaitarrei eskerrak emateko, bere semeari Jatorrizko Bizkaitar titulua eman baitzioten, Gernikako 1856ko Batzar Nagusietan.

Louis-Auguste Couvrefchef arkitekto frantsesak planoak egin eta obrak zuzendu zituen; horrek Eugenia enperatrizarentzat Miarritzen 1854an eraikitako Udako Etxea ere egin zuen.

Arteagako gaztelua 1857ko maiatzean hasi ziren egiten, Arteagako antzinako dorrearen zimenduen gainean; dorre horretatik, harresiaren zati bat eta kuboetariko bi baino ez zaizkigu gelditu.

Eraikina altxatzeko ez zen eskualdeko inolako erreferentzia arkitektonikorik aintzat hartu; lau solairu ditu. Lehenengoan sukaldeak eta gangadun sotoa daude. Beste hiru solairuak elkarrekiko berdinak dira eta gelatzat erabiltzen ziren. Bigarrenean, kapera zegoen. Horiek guztiak eskailera kiribil bikain baten bidez lotuta daude, eta hori itsatsitako dorre batean dago.

Zoladura bikaina da eta kolore desberdinetako marmolez eginda dago; marmol hori Ereñoko eta Gautegizko harrobietakoa da.

Couvrefchef arkitektoa gaixotu eta hil egin zen, Arteagan, bere obra amaitu baino lehen. Horren orde, Aucelet arkitektoak hartu zuen obraren zuzendaritza.

Multzo osoa "misteriotsua" da eta inguruan dituen paisaiek (batez ere, itsasadarren aldean), gainera, nabarmendu egiten dute misterio hori.



Gazteluari buruz, esaten da hain ederra izatearen ondorioz edertasun horrek nortasuna kentzen diola.



Castro-ko gaztelua

Castro Urdiales hiribildua Bizkaian sartuta egon zen, harik eta Gaztelako kondestablea izandako Pedro Fernández de Velascok Jaureritik bereziki arte. Desanexioa 1471n izan zen, Mungiaiko bizkaitarrek kondestablearen armada garaitu ondoren (horrek Bizkaiko Jaureria konkistatu nahi baitzuen).

Artearen arloko beste zenbait altxorren artean, Castro hiribilduan Andre Maria elizak eta gazteluak osaturiko monumentu multzoa dago, arkitektura erlijioso eta militar gotikoaren erakusgarri.

Bi eraikin horiek altxatzeko garaian (XIII. mendea), Castro bere goren unean zegoen, eta "Hermandad de las

Marismas" zeritzonak ere Castro aukeratu zuen biltzeko; ermandade hori 1296an sortu zen eta Gasteiz, Bermeok, Santanderrek eta Castrok osatzen zuten; bere helburua, herri horietako merkataria babestea eta sustatzea zen.

Castroko gaztelua oinplano pentagonaleko eraikina da, muturretan kuboak ditu eta bere helburu nagusia defentsa zen. Leku estrategikoan kokaturik dago (muino batean, labarraren ondoan); talaia hori bikaina zen, Bizkaiko kostalde osoko itsaso-trafikoa (Meñakotzetik) behatzeko; bertatik, porturako sarbidea menperatzen eta kontrolatzen zen.



Lutxanako gaztelua eta dorrea

Lutxanako gaztelua Fernán Pérez de Aiala y Guzmanek (Aiala etxeko jauna) eraiki zuen; 1430ean hasi eta 1435ean amaitu zuen. Horren prezioa Gaztelako 18.000 doblakoa izan zen. Izan ere, bi dorre dira: bata nagusia (gaztelua) eta bestea menpekoa, eta euren artean estalitako eta altxaturiko korridore baten bitartez lotuta daude. Kokaleku estrategikoa edukitzeari esker (zimenduak Ibaizabalen urtetan bertan ditu), Bilbora sartu eta bertatik irteten zen trafikoa osoa menperatuz, Bizkaiko gotorleku garrantzitsuenetarikoa izan zen, garai horretan.

Barakaldoko elizatea Aialatarren feudoa zen, Lutxanako gaztelua eraiki baino askoz ere lehenago. Bertan zituzten jabetzak Fernán de Aialak erosi zizkien (Pedro López de Aiala kantzelari ospetsuaren aita eta Fernán Pérezen aitona; azken horrek gaztelua eraikitzeke agindua eman zuen), Joan Sánchez de Salzedoren kabezaleroei, aurreko urteetan Aiala eta Salzedo etxea osatu zuten jabetza guztiak berreskuratzeko asmoz.

Aialatarrek botere itzela izan zuten Barakaldon. Burdinolak eta etxe petxeroak zituzten, baita Lutxanako gaztelua, Landaburu dorrea, Bitoritxa jauregia, Burtzeña dorrea eta Cadalso dorrea ere. Azken biak, berriz, Aialatarrek Burtzeñako mesedetako komentuari dohaintzan eman zioten, komentu hori euren aginduz eraiki baitzen.

1448an, Aialatarrek Haroko kondeari eman behar izan zioten Lutxanako gaztelua, Salazar de Muñatonestarren aurkako laguntza militarra ematearen truke (Haroko kondearen tropen mantentamenduak sorturiko gastuak "un cuento de maravedis" deritzon tasatu ziren). Horren ordez, Aialatarrek balio txikiagoko beste lur batzuk jaso zituzten, Burgosen.

XVII. mendeko erdian, gaztelua eta horren ondoko jabetzak Mariana de Bitio andrearen jabetzakoak izan ziren (Pablo Van Hautenen alarguna). Mende horretan, Castaños familiakoek lortu zituzten (Begoñako zaindariak); horien sustraiak Barakaldon zeuden, Juan de Castaños almirantearen garaitik.



Mañé y Flaquer autoreak Lutxanako gotorlekua ezagutu zuen, hori eraitsi baino lehen, 1880aren inguruan; horrek idatzitakoaren arabera, "*Bizkaiko gaztelurik ederrena da*", eta, hori frogatzeko, XV. mendeko agiri batean jasotakoa gogoratzen zuen, bertan gazteluaren kanpoko itxuraren deskribapena egiten baitzen: "Lutxanako dorrea edo gotorlekua harrizko bi dorre karratuk osatzen dute; bien artean gela bat dago, eta gela horretan igarobide bat; dorrea itsasoari begira dago bere bi itsuleihoekin, hegoalderantz, eta lubakia ere badauka, baita zubia ere alde horretan,

berori baita alde nagusia, gotorlekura lurretik sartzeko; dorreen artean armen plaza dago, gaitasun handikoa eta handia, eta alde guztietan ateak daude; itsasoaren aldetik eskala edo ontziratzeko lekua dauka, ate eta guztikoa; eskala horren gaineko kubo batean armarrria dago, eta horiek S.E.-renak dira, eta beraz, gotorlekuaren eta dorrearen alkatea S.E. da, eta burdinazko piezak daude bertan, eta horietarako balak eta beste baliabide batzuk dituzte (MANÉ Y FLAQUER, JUAN. "Viaje al País de los Fueros". 1880.)

Orozkoko gazteluak

Orozkon bi gaztelu egon ziren, bata Rivasekoa, Anuntzibai burdinolaren gainean, eta bestea (ospetsuena), Untzetako gaztelua, izen horretako haitzen gainean kokaturikoa; leku hori berebizikoa zen, Bizkaiko sARBIDEA babesteko, Urduñatik eta Altubetik zetozen bideen gurutzagunetik hurbil baitzegoen.

Orozkon, Landa dorreari ere gaztelu esan zaio; hori Gramosako markesaren maiorazkoarena izan zen.

Horietatik, boteretsuena Untzetakoa izan da, antza denez. Legendak dioenez, gaztelua VI. mendekoa da, eta auzokoek bota zuten, 935. urtean. Berreraiki zutenean, zenbait eraso jasan behar izan zituen, bat Alonso Jakintsuak 1277an

egindakoa. Beste bat Diego López de Salzedok 1289an egindakoa (Sancho Ausarta erregeak bidalita). Beste bat Alfontso XI.ak 1334an egindakoa, eta, azkenik, Pedro I. Krudela erregeak 1358an egindakoa (bere anaia Tello jazartzen ari zela).

On Tellok eraitsi zuen 1357an.



Urduñako gaztelua

Urduña 804. urtean aipatu da lehenengoz, Santa María de Valpuestako foruan, Alfonsito II.a Oviendon errege zenean; hala eta guztiz ere, badirudi gaztelua lehenagokoa dela. Iturriza historialariaren ustez, VIII. mendekoa zen, eta "moroak Mirandara, Pancorbora eta Ebro ibaitik hurbilera iristearen ondorioz" eraiki zen. Lehenengo biztanleria, berriz, gazteluaren ondoan finkatu zen: "Urduña inguruko biztanleek, Alfonsito Katoliko erregeak aginduta, gaztelu bat eraiki zuten, muino handi baten gaineko lautadan, eta horren babesean, ekialdean, herri txikia finkatu zen ..."

Gazteluaren neurriak itzelak izan ziren antza, bertan 3.000 arma-gizon

sartzen baitziren, eta harresien lodiera bi gurdirena baino handiagoa zen (gurdiok elkarren ondoan jarrita).

XV. mendeko amaieran, Errege Katolikoek García López de Aiala mariskalari (Aialako Jauna) eman zioten gaztelua eta hiria. Hala eta guztiz ere, handik gutxira, bizkaitarren proposamenak kontuan hartuz eta eurentzat ere komenigarria zenez, berriro ere koroari itzultzeko eskatu zioten; horrek ezetz erantzutean, Urduñako pribilegioak berritzeko eta hori berriz ere Bizkaian sartzeko erabakia hartu zuten. Mariskala, horrekin ados ez zeuden beste batzuekin batera (Treviñoko kondea eta Salazar etxea), armatan altxatu zen, erregearen aurka;

horrela, gerraaldi bati hasiera eman zitzaion eta hori ez zen amaitu alderdi biek euren asmoak alde batera utzi arte. Aiala etxeak Urduña galdu zuen, gaztelua euren jabetzan mantendu arren.

Komunitateen gerra hasi zenean, gaztelua Pedro de Aialaren esku zegoen (zuzendari komunero nagusienetarikoa). Auzokoek (Karlos V.aren aldekoak) gaztelua hartu eta, Aialatarrak biziki gorrotatzen zituztenez, erre egin zuten.

Hondakinek denbora laburrez iraun zuten zutik, Karlos V.a enperadoreak hori eraisteko agindua eman baitzuen. Azkenik, gaztelu zaharren azterna guztiak desagertu ziren, 1788tik aurrera guztiz eraitsi zutenean, bertako harriak Aduanaren eraikina eraikitzeke asmoz.



Urduña. Aduana. Aduana eraikitzeke erabilitako harriek eraikinak bera baino historia handiagoa dute; izan ere, lehen gazteluko harriak izan ziren eta bataila asko ikusi zituzten.



Urduña. Urduñako Antiguako Ama Birjina. Fatxadan hiriaren armarrria ikusten da. Ezkerretara gaztelu gogorra, eta eskuinera lehoia, lantza bat heldulekutik eusten; lantzaren goialdean gurutzea dago, armarrriaren erdian kokatuta. Tradizioak dioenez, antzinako dibisa gaztelua baino ez zen, baina hori handitu egin zen Enrike IV.aren garaian, garai horretan Bizkaiko eliza guztietako olio santuak Urduñan gorde baitziren, lurraldea hondatzen zuten gerretatik babesteko. Leku honetan Urduña zaharra altxatzen zen; hori, gero, berriz fundatu eta lekuz aldatu zen, orain duen kokalekura; lekualdatze hori Alfonsito I.ak egin zuen, 1256an.

Galeako gotorlekua (Printzearen gaztelua)

Nahiz eta ohiko gaztelua ez izan, gerrako helburuarekin eraikitako eraikuntza militarra da. 1742an eraiki zuten, Ingalaterraren aurkako gerran, kostaldea eta merkataritza koloniala defendatzeko, hori Ingalaterrako kortsa-rioren mehatxuarekin baitzegoen. Gotorlekuaren sarbidean, lubaki bat jarri zuten, eta, hori gurutzatzeko, zubi altxagarria zegoen, baina hori ez da gaur egunera iritsi. 16 kanoi edukitzeko gaitasuna duten itsu-leihoak ditu.

Dorre zilindrikoa erdian dago eta 1791ekoa da; horren goialdera iristeko, eskailera kiribil batetik joan behar da. XIX. mendearen amaieratik, farotzat erabiltzen da.

Gaztelu horrek, bestalde, Jaurerriak gaituriko defentsarako sistema osatzen zuen; sistema hori gutxienez XVI. mendean sortu zen eta Ibaizabalen bokalearen bi ertzak estaltzen zituen, zenbait talaia eta gotorlekurekin.



Gaztelugatxeko gaztelua.

Gaztelugatxeko oraingo San Joan basiliza dagoen lekuan edo bertatik hurbil egon omen zen. Horixe atera daiteke, behintzat, basilizaren izena (Gaztelu) kontuan hartuta.

Alfontso XI.ak egindako kronikan, Errege horren armadak eraso egindako gotorlekua aipatzen da; eraso hori, berriz, erregea Bizkaiko Joan Nuñez de Lara jaunaren atzetik zebilenean gertatu zen, 1334an.

Gaztelugatxeko basilizak, 1782an, Ingalaterrako kortsarioen bi itsasontziren eraso jasan zuen; horiek, bertako guztia lapurtu zuten, baina gero ihes egin behar izan zuten, bertakoek armak hartuta horretara behartuta.

1978an, sute baten ostean, basiliza berriro eraiki zen, eta 1980an inauguratu zuten.



Aipaturikoak ez ezik, beste gaztelu batzuk ere egon ziren (gazteluak edo inoiz izen hori hartu zuten eraikinak), esate baterako, Bilboko gaztelua, hiribilduko Kontzejuaren aginduz eraitsitakoa, 1366an; Balmasedakoa; Herrerako La Piedra gaztelua, Gaztelako kondestablearen jabetzakoa; Larrabatzuko gaztelua, Jaurerriko zentsu-

etxeen Ahaide Nagusiaren jabetzakoa. Gotorlekuak ere egon ziren, adibidez, Seranteskoa...

Galdameseko Loizaga dorrearen berreraikuntzaren helburua (oraintsu egindako berreraikuntza), bestalde, dorre horri gazteluen monumentalitatea ematea izan da.

Dorre askori gaztelu izena eman zaie

inoiz, baina izen hori segurutik oso esanguratsua izango zen, gerrarako eraikuntzarik zaharrenekin bat etorritik. Agirien bidezko erreferentziak galdu egin diren arren, gure geografian "gaztelu" hitzak dituen toponimo kopuru handia kontuan hartuz, gazteluak oso ugariak izan zirela pentsa daiteke.

